

## **OÑATI dana zana, Ibilaldietan parte-hartze baldintzak:**

---

- a- Ibilaldietan edonork parte hartu dezake. 16 urtez azpiko pertsonak, pertsona heldu arduradun batekin etorriko dira.
- b- Irteera ordua 10.30ean izango da eta tokia Kale Barriako Antixena parkearen sarreran izango da. Pertsona asko apuntatuko balira taldeak egin eta ordutegi berria antolatuko dira.
- c- Ibilaldiak 13.00ean bukatzen saiatuko gara (talde kopuruaren arabera).
- d- Behar zehatzak:

### **Urriak 28 Ibai ezkutua**

- Izen ematean NAN zenbakia eman beharko da, beharrezkoa den segurua ateratzeko.
- Ibilaldi honetarako zikintzeko moduko arropa (arropa zaharra) eta ibaian sartzeko oinetakoak, katiuskak baina hobeto zapatila edo botak (zaharrak hobe), oinak uretan sartu beharko dira.
- Kaleko arroparekin joango gara ibaiaren sarrerara bertan arropa zaharra jantzi eta kalekoa autoetan eramango dugu ibaitik aterako garen puntura.
- Ibitik ateratakoan lehertzeko toalla bat beharko da.
- Ibilaldia lurpean izango denez fresko egingo du beraz ondo jantzi.
- Gomendagarria da frontal bat eramatea, eskuko linternak ez dira onartuko, jendeak eskuak libre izatea komeni bai da.
- Ibilaldi honen gauzatzea edo data eguraldiaren menpe egongo da.

